

LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

2014ko URRIAREN 2an, LARRAULGO UDAL PLENO ARETOAN EGINDAKO OHIKO UDALBATZAREN AKTA

2014ko urriaren 2an, Larraulgo Udaletxeko Pleno Aretoan, arratsaldeko 19.30 orduetan, Xabier Mujika Pagola alkatearen lehendakaritzapean, behean aipatzen diren zinegotziak biltzen dira.

ALKATEA: Xabier Mujika Pagola


ZINEGOTZIAK: Gotzon Jauregi Sarasola
Imanol Aranzabal Lasa
Igor Barandiaran Perez de Arriluzea
Karlos Irazu Muñoa
Jon Tejeria Otermin
Aritz Usandizaga Larrañaga

IDAZKARIA: Ane Gomez Urteaga

...//...

Alkate jaunak bilerari hasiera ematen dio, ondorengo gaiak tratatzen direlarik:

- 1. Ondoren adierazten den Udalbatzarretako akta onestu, hala badagokio:**
 - **2014ko irailaren 4an egindako ohiko bilkura.**
- 2. Alkatetza ebazpenen berri ematea.**
- 3. I.Z. andreak eginiko eskaera aztertu, hala badagokio.**
- 4. O.U. andreak eginiko eskaera aztertu, hala bada.**
- 5. J.S.E. jaunak eginiko eskaera aztertu, hala badagokio.**
- 6. A.A. jaunak eginiko eskaera aztertu, hala badagokio.**
- 7. 2013-2014 ikasturterako Euskara ikastaroetako diru-laguntzen eskaeraren onespena, hala bada.**
- 8. Aiztondoko helduen liburutegi amankomunaren aurre-akordioaren onespena, hala bada.**
- 9. 2014/2015 ikasturtean antolatu behar diren ikastaro desberdinen azterketa, hala bada.**
- 10. KUNETAK garbitzeko diruz lagundutako 3 langile kontratatzeko proposamenaren azterketa, hala bada.**
- 11. Larraulgo Agiñezabal Handi baserriko Soroaundi lur saileko lanak legeztatzeko proiektuaren azterketa, K.I.**
- 12. Larraulgo Laztari B etxean jardinean portxe bat eraikitzeko obra baimena eskaera, K.P.A.**
- 13. Olatza baserriaren pabiloian teiltatuko uralitaren gainean panel sandwicha jartzeko obra baimena eskaera, I.S.**



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

14. Larraulen konpostaje ezarketaren azken berriak ematea eta hurrengo pausoak erabakitzea, hala bada
15. Fakturak eta ordainketak.
16. Beste batzuk.
17. Erregu, galderak eta mozioak.

.../...

LEHENENGO PUNTUA

ONDOREN AIPATZEN DIREN UDALBATZAREN AKTA ONESTU, HALA BADA.

- ▣ 2014 urteko irailaren 4ko Udalbatzaren ohiko akta. Irakurri ondoren bertaratuek aho batez onesten dute.

BIGARREN PUNTUA

ALKATETZA EBAZPENEN BERRI EMATEA

Alkate jaunak azkeneko Udalbatzarretik emandako ebazpenen berri ematen du:

15/2014 Alkatetza Ebazpena, irailaren 16koa, 2015 urterako Larraulgo Udalerriko jaiegun bezala, abuztuak 3 astelehena finkatzea, ebazten duena.

Bertaratuak jakinaren gainean gelditzen dira.

HIRUGARREN PUNTUA

I.Z. ANDREAK EGINIKO ESKAERA AZTERTU, HALA BADAGOKIO

Ikusirik I.Z. andreak eginiko eskaera, non 2014/2015 ikasturtean Ingeleseko ludoteka bat sortu nahi duela eta hau posible ahal izateko, Udal lokal baten eskaera egiten duen.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengo


ERABAKITZEN DU:

LEHENA: I.Z. andreak eginiko eskaera onestea, hau da, udalak duen lokal bat erabiltzeko baimena ematea, lekurik aproposena Udal liburutegia izanik.

BIGARRENA: Erabaki honen berri I.Z. andreari ematea.

LAUGARREN PUNTUA

O.U. ANDREAK EGINIKO ESKAERA AZTERTU, HALA BADA



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

Ikusirik O.U. andreak eginiko eskaera, non 2014/2015 ikasturtean eskolaz kanpoko jardueratan, musika saioak eskaini behar direla eta, astearteetan 13.30etatik 14.30etara, 2014ko urriaren 7tik 2015eko ekainaren 16arte, horretarako, liburutegia erabiltzeko eskaera egiten du.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengo

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: O.U. andreak eginiko eskaera onestea, hau da, astearteetan 13.30etatik 14.30etara, 2014ko urriaren 7tik 2015eko ekainaren 16arte, liburutegia erabiltzeko baimena ematea.

BIGARRENA: Erabaki honen berri O.U. andreari ematea.

BOSTGARREN PUNTUA

J.S.E. JAUNAK EGINIKO ESKAERA AZTERTU, HALA BADAGOKIO

Une honetan, arratsaldeko 19.55 orduetan, Aritz Usandizaga zinegotzia Udalbatza honetara bertaratzen da.

Ikusirik J.S.E. jaunak eginiko eskaera, non Gipuzkoako Elikagai bankuak beharreak dauden jendeen artean banatzen ari den elikagai kopuruak sortzen ari zaien tesoreri arazoak saihesteko diru-laguntza eskaera egiten duen.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengo

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: J.S.E. jaunak eginiko eskaera ukatu, Larraulgo Udaletako aurrekontuetan ez dagoelako jasota helburu horretarako partida ekonomikorik.


BIGARRENA: J.S.E. jaunari jakinarazi, Larraulgo herriak antolatutako ekintza batetan ateratako dirua, Gipuzkoako Elikagai bankuari eman diola elikagaietan.

HIRUGARRENA: Erabaki honen berri J.S.E. jaunari ematea.

SEIGARREN PUNTUA

A.A. JAUNAK EGINIKO ESKAERA AZTERTU, HALA BADAGOKIO

Ikusirik A.A. jaunak, hainbat larrauldarren izenean eginiko eskaera, non datorren ostirala eta larunbatean, urriak 10 eta 11an herriko parke zaharraren ondoan dagoen aparkalekuan egurra ebaki behar dutela, ostiralean etorriko den egur kamioia lekua izan dezan bertan egurra uzteko, ostiraletik aparkalekua ixteko eskaera egiten dio Larraulgo



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

Udalari, egurra mozten urriaren 10an arratsaldean hasiz eta urriaren 11an iluntzean bukatzeko eta hau ez bada posible urriaren 12ko eguerdian bukatuko da.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengo,

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: A.A. jaunak eginiko eskaera onestu. Hau da, ostiraletik herriko parke zaharrear dagoen aparkalekua kotxeentzako itxiko dela, bertan, ostirala eta larunbatean dagoen herritarrek egurra mozteko, lanak bukatzean aparkalekua garbitu beharko delarik. Aparkamendu ondoan dagoen artasoroa errespetatu egin beharko da.

BIGARRENA: Aipaturiko baimena hirugarrenen kalterik gabe izango da.

HIRUGARRENA: A. jaunari jakinarazi egurra mozteko beharrezkoak diren segurtasun neurriak hartu beharko zituela eta Larraulgo Udala ez dela kargu egiten bertan ezbeharrik gertatzen bada.

ZAZPIGARREN PUNTUA


2013/2014 IKASTURTERAKO EUSKARA IKASTAROETAKO DIRU-LAGUNTZEN ESKAERAREN ONESPENA, HALA BADA

Ikusirik Larraulgo Udalak 2014ko uztailearen 30ean ospatutako ohiko Udalbatzarrean 2013-2014 ikasturterako Larraulgo biztanleentzat euskara ikastaroak burutzeko diru-laguntzak arautzen dituzten oinarriak onartu zituela.

Ikusirik irailaren 30eko epea finkatu zela diru-laguntza hauen eskaerak egiteko.

Ikusirik epe horren barruan hainbat eskaera aurkeztu direla, onartutako 2 , 3 eta 4 oinarriak betetzen dituztela, ondorengoak direlarik:

IZEN ABIZENAK	JARDUERA
I.S.G.	EUSKARA
F.A.O.	EUSKARA
P.P.S.	EUSKARA
J.G.A.	EUSKARA
A.N.L.	EUSKARA
M.A.R.	EUSKARA
E.J.	EUSKARA
A.M.G.	EUSKARA
L.P.O.	EUSKARA



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

Gaia aztertutik, bertaratuek, aho batez

ERABAKITZEN DUTE

LEHENGOA.- 2013-2014 ikasturterako Larraulgo herritarrei Euskara ikastaroak burutzeko diru-laguntzak onestea, diru-laguntza eskaturiko % 100 izango delarik.

BIGARRENA.- 1.739 eurotako gastua onartzea.

HIRUGARRENA.- 2014 urteko udal aurrekontuan kreditu nahikoa aurreikustea.

ZORTZIGARREN PUNTUA

AIZTONDOKO HELDUEN LIBURUTEGI AMANKOMUNAREN AURRE- AKORDIOAREN ONESPENA, HALA BADA

Alkate-Lehendakariak batzarkideei aurkezten die Aiztondo Helduen liburutegi amankomunaren proiektua, bertaratuei proposatzen dielarik ondoren aurkezten duen aurre-akordioaren onespena. Aipaturiko aurre-akordioa ondorengoa izanik:

“AIZTONDOKO HELDUEN LIBURUTEGI AMANKOMUNA AURRE-AKORDIOA

AURREKARIAK:

1.-Zizurkilgo Udalak **AIZTONDOKO HELDUEN LIBURUTEGI AMANKOMUNA** sortzeko hausnarketa egin du. Proiektu berritzaile eta eredugarria da eta liburu munduan erreferente bilakatuko da bailara osoan.


2.-Hasierako oinarrizko proiektua aurkeztu da, hots: ideia bera eta abiapuntu izango den plano bat. Ekimenean parte hartuko duten herri guztien artean ideia materializatu beharko da, guztion ekarpen eta parte-hartzearekin ekimena bera aberastuko baitugu.

3.-Bai Gipuzkoako Foru Aldundia eta baita Eusko Jaurlaritzan hasierako ideia aurkeztu da eta proiektu pilotu eta eredugarri bezala onartu dute. Instituzio hauen babesa lortu da.

AKORDIOAK:

1.-Zizurkil, Asteasu, Aduna, Alkiza eta Larraulgo Udalek **AIZTONDOKO HELDUEN LIBURUTEGI AMANKOMUNA** sortzeko beharrezkoak diren lehenengo pausoak emateko **AKORDIOA** hartzen dute:

1.1.-Zizurkilgo Udalak aurkeztu duen Aiztondoko Helduen Liburutegi Amankomunaren oinarrizko ideia landu eta oportazioak egitea.



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

1.2. Zizurkilgo Udalak Joxe Arregi Plazan duen lokalean lekutzeko akordioa hartzen dute.

1.3. Gipuzkoako Foru Aldundia eta Eusko Jaurlaritzaren aurrean diru-laguntzak lortzeko behar diren tramitazioei hasiera ematea.

1.4. Aiztondoko Helduen Liburutegi Amankomunaren kudeaketa eta antolaketaren inguruan akordioak lortzea.”

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Aiztondoko Helduen liburutegi amankomunaren aurre-akordioa bere osotasunean onestea.

BIGARRENA: Alkate-Lehendakaria den Xabier Mujika jauna, ahalmentzea, aurre-akordio hau sina dezan.

HIRUGARRENA: Erabaki hauen berri Zizurkilgo Udalari ematea.

BEDERATZIGARREN PUNTUA

2014/2015 IKASTURTEAN ANTOLATU BEHAR DIREN IKASTARO DESBERDINEN AZTERKETA, HALA BADA

Alkate-Lehendakariak 2014/2015 ikasturtean antolatu behar diren ikastaro desberdinei buruzko informazioa ematen du.


Hurrei buruzko ikastaroei buruz, Alkateak dio lau ikastaro desberdin antolatu behar direla, ondorengoak izanik: Dantza, Pelota, eskulanak eta Soinketa dibertigarria. Ikastaro hauei buruz, Kultur dinamizatzaileak adierazi omen dio, Udalak egin beharreko aportazioa aurreko urtean egindakoaren antzekoa izango dela.

Helduen ikastaroei buruz, Alkateak dio 2 ikastaro antolatu nahi direla, Pala eta Chi-kun. Haurren ikastaroetan egiten den bezala, Udalak hauek diruz laguntzeko eskaera egiten da, batzarkideen artean gaia eztabaidatzen dutelarik.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: 2014/2015 ikasturtean zehar antolatuko diren ikastaroak onestea.



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

BIGARRENA: 2014/2015 ikasturtean antolatu behar diren helduen ikastaroetako, Larraulgo Udalak, 500 euro jartzea, honen kudeaketa Larraulgo Kultur dinamizatzailerik egingo duelarik.

HIRUGARRENA: Erabaki hauen berri Larraulgo Kultur dinamizatzailerari ematea.

HAMARGARREN PUNTUA

KUNETAK GARBITZEKO DIRUZ LAGUNDUTAKO 3 LANGILE KONTRATATZEKO PROPOSAMENAREN AZTERKETA, HALA BADA

Alkate-Lehendakariak bertaratuei berri ematen die Belarmendiri baserri bideetako kunetak garbitzeko 3 pertsonaz osatutako talde bat osatzeko, hauen kostuaren %75 diruz lagundu diela. Tolomendi bitartez, diru-laguntza honen berri azaltzen zaie Tolosaldeko herriei. Azkenik, Tolomendik, herri hauei talde hau erabiltzeko interesa azaltzea eskatzen dielarik.

Larraulgo Udalak, Tolomendin bere interesa azaldu du, 3 pertsonaz osaturiko taldeak Larraulgo herrian kunetak garbitzeko, erabiliko lukeela.

Ondoren, urriaren 1ean Tolomendin izandako bileraren berri ematen du Alkateak, honek dio 14 herri agertu direla interesatuta proiektu honekin. Bileran jakitera eman zien talde honek, 14 herrietan euren lanak egingo balitu, herri bakoitzean, gehienez 7 lanegun egingo dituztela. Herri bakoitzak talde honen %25 kostuaren kargu egin beharko duelarik. Gainera herri batzuk egun gutxiagotan erabiltzen badute hauen zerbitzua, interesatuta dauden beste herrien artean banatuko dituzte erabili gabeko egunak.

Gaia aztertutik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengo

ERABAKITZEN DU:


LEHENA: Belarmendiri diruz lagundutako, kunetak garbitzeko 3 pertsonaz osatutako taldeak, Larraulgo herrian lan egiteko onespena ematea. Larraulgo Udalak 3 pertsona hauen kostuaren %25a bere gain hartuko duelarik.

BIGARRENA: Tolomendiri jakinarazi, Larraulgo Udala bere interesa azaltzen duela, Larraulgo herrian, 3 pertsonaz osatutako taldeak gutxienez 7 egunez eta gehienez 10 lan egiteko.

HIRUGARRENA: Erabaki hauen berri Tolomendiri ematea.

HAMAIKAGARREN PUNTUA

LARRAULGO AGIÑEZABAL HANDI BASERRIKO SOROHAUNDI LUR SAILEKO LANAK LEGEZTATZEKO PROIEKTUAREN AZTERKETA, K.I.




LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

Ikusirik, K.I. jaunak 2014ko irailaren 18an aurkeztu duela, Ion Ander Leñeña Urretabizkaia Ingeniari agronomoak eginiko, Agiñezabal handi baserriko inguruetan eraikitzen ari den eraikineko lanen legeztapen proiektua.

Ikusirik Udal Aholkulari teknikoak, aipaturiko legeztapen proiektua aztertu ondoren, azaltzen duela, dokumentazio gehigarria ekarri beharko duela I. jaunak, ondorengoa delarik:

- Aurretik bidalitako K. legeztapenaren proiektuaren zirriborroa eta lehengo ostiralean bidalitakoa ezberdinak dira.
- Baimendutako eta egindako eraikinaren arteko diferentziak zeintzuk izan diren esplikatu beharko litzateke. Orientazioak, alturak, materialak, planta berria, fatxadaren azaltzen diren egurren balioa, etbr...
- Justifikazio urbanistikoa puntuz puntu egiten da, baina ez da esaten betetzen duela...Betetzen duen edo ez esan behar da. Ondoko etxebizitza eta eraikin berriaren arteko distantzia zein den ere esan behar da. Nahiz eta ez bete 100m-ak...
- Suteen arauditik (RD 2267/2004-tik alegia) zergatik gelditzen den kanpo hobe argitu beharko da.
- REBT betetzen duen edo ez ere esan beharko da ere, ez bait da ezer esaten argindarrari buruz.
- Planta bakoitzaren azalera erabilgarriak ere jarri beharko lirateke (eta zona bakoitzarena ere) eta erabilera edo programa hobe zehaztu, hau da, esan ze zonaldeak dauden, nola funtzionatzen da, nola igotzen da materiala goiko pisura, nondik sartzen da materiala, nondik atera, non gorde...
- Eraikitze sistemari ez da ezer esaten blokez egindako kargazko paretetaz eta egindako egurrezko egitura berriaz (goiko oinaren forjatua).. CTE-SE justifikatu, erabilitako kargak jarri
- Jarduera proiektuari azalpenak falta zaizkio; zer egiten da, nola egiten da, ze materiala erabiltzen den, zein da potentzia elektrikoa eta mekanikoa, zein da suaren karga....
- Aurrekontua, legeztapen bat izanik, estimatiboa izatea ondo dago baina kapituluaren laburpen bat sartu beharko da. Proiektu berriaren kopurua, egin diren edo egin behar diren lanengatik oso motza gelditu da. Teilatu guzian aislamentua eta egurrezko planta bat egiteagatik 2500€ pagatzea ez da sinisgarria, (272m² ko egurrezko planta berria+ 280m² teilatuaren aislamentua, portxearen eta goiko sarreraren barandillak...)
- Saneamendu aldetik, Larraulgo 49º artikulurengatik, fosa jartzea DERRIGORREZKOA da, baina ez da planoetan azaltzen. Pertsona batek lan egin behar badu, komuna jartzea ere...
- Eraikinaren itxurari buruz, "se ajustaran en cuanto a su volumetria y configuracion general a las existentes en Larraul" jartzen du araudian, eztabaidagarria izan daiteke portxearen itxura...
- Eraikinaren potentzia zenbatekoa izango den arabera proiektu elektrikoa beharko luke edo ez. Zein den potentzia adierazi beharko litzateke beraz...Obra amaitzean boletina eskatuko zaio



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

- Planoen aldetik, zerbitzuen plano orokor bat sartzea falta da (plano de urbanización general, con instalaciones generales, acometidas.), teilatuaren plano, alturak markatzea. Sekzio bat ere.

Ondoren Irazu zinegotziak batzarkideei jakitera ematen die bi teknikoak bilera bat izan behar dutela, Udal Aholkulari Teknikoak eskatutako dokumentazio gehigarria zehazteko.

Irazu zinegotziak azaltzen du obrarekin jarraitu nahi duela, bi hilabetez, obra geldituta duelako. Gainera negua datorrela eta zarpiatzen hasi nahi duela dio.

Irazu zinegotziak batzarkideei galdetzen die ea beste hilabetez itxuiten egon behar ote duen obrarekin jarraitzeko.


Alkateak Irazu zinegotziari erantzuten dio esanaz, egin duena barbaridade bat dela. Irazu zinegotziak erantzuten du esanaz, jakitera eman ziela eskatutako eraikina berak egin behar zuela eta berdina ez zela izango, eta proiektutik kanpo egin duen bakarra entreplanta izan dela. Gainera dio, Udalaren aktuazioa barbaridade bat izan dela, hau da, berarekin izandako tratamendua, ez delako beste batzuekin izandakoaren berdina. Obra asko omen daude baimenetik kanpo eginak eta besteekin ez dela tratamendu berdina izan.

Alkateak orduan, Irazu zinegotziari erantzuten dio esanaz, batzarkideei jakitera eman ziela teilatua ez zekiela nola egin behar zuen, baina entreplantari buruz ez ziela ezer esan.

Irazu zinegotziak Alkateari erantzuten dio esanaz teilatua proiektuan zetorrena baino txikiagoa egin duela eta horren azpian egin duela dena.

Ondoren Aranzabal zinegotziak dio, baimena eman zitzaionean Irazu zinegotziari, eraikin xehe bat egiteko zela. Proiektuaren arabera azalera berdina dela, baina barruan eta gaikaldean eta estruktura aldetik oso desberdina dela. Beraz, beste baldintza batzuk eskatu beharko direla hori horrela bada. Hasierako ideiatik orain egiten ari dena, naiz eta zentzu berdina izan, oso kontzeptu desberdina dela. Beste egitura bat dela, beraz, beste baldintza batzuk beharko dituela.

Segidan, Irazu zinegotziak erantzuten du esanaz jende asko esaten ari dela egiten ari den eraikina etxe bat dela, baino denborak erakutsiko duela hori ez dela horrela. Bertan sartutako materiala, egurra, blokeak eta teila direla. Gainera dio entreplanta egiteko aukera obra aurrera zihoan heinean atera zitzaiola eta obra bukatzean legezatzeko asmoa zuela, ez zuela uste batzarkideak horrela hartuko zutela, bestela azkarrago eskatuko omen zuela baimena entreplanta egiteko. Gauza txukun bat egiten saiatu dela, intentzio txarrik gabe, eta ezkutuko obrak ez dituela egin eta Udala ez dela beste obra batzuetan horrela sartzen.



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

Alkateak dio baimena eman zitzaiola eraikina egiteko, gainera Irazu zinegotziak esan ziela berak egin behar zuela eta hori ere onartu zutela, baina entreplanta bat atera duela eta hori gehiegizkoa dela.

Tejeria zinegotziak dio obra hau ikustea ez joatea lotsagarria iruditzen zaiola, beste obra batzuekin gertatzen den bezala. Aranzabal zinegotziak Tejeria zinegotziari erantzuten dio esanaz argazkiak ikusi dituela eta berarentzat nahikoa dela egindakoa balorazio bat egiteko.

Irazu zinegotziak dio gauza txukun bat egiten saiatu dela, gainera material sendoak hartu dituela hori egiteko.

Alkateak esaten du ea zergatik ez duen kontzeptua idatziz aurkezten, hau da, bertan zer egingo duen. Irazuk zinegotziak dio proiektuan jartzen duela. Alkateak erantzuten dio esanez zirriborroa eta proiektua desberdinak direla, beraz eskatutako dokumentazioa aurkezteko eta orduan hitzegingo dutela.

Irazu zinegotziak esaten du berak bilera bat eskatu zuela, azaltzeko zer egin zuen eta ez zietela aukera hori eman. Alkateak berriro erantzuten dio esanaz zer esan nahi duen idatziz azaltzeko.

Irazu zinegotziak berriro dio proiekturik kanpo egin duen bakarra entreplanta izan dela eta ezkutuan ez duela ezer egin. Gainera galdetzen du ea zenbat jende etorri den udaletxera kejatzea, gainera galdetzen du herrian ze kalte sortzen duen egin duena eta sua udaletxe barruan sortu dela.


Barandiaran zinegotziak ondoren Irazu zinegotziari esaten dio idatziz azaltzeko egin duena eta ez hitzez.

Aranzabal zinegotziak orduan dio, mintzen diona dela, astero biltzen direla eta ez diela ezer esan entreplanta bat egin duela eta egin duenetatik eskatzen zuenera alde dagoela, eta gainera Udalbatzako mahaian eseritzen direnak herriaren aurrean ejemploa eman behar dutela.

Ondoren batzarkideek euren artean eztabaidatzen dute beste obra batzuekin udalak hartu duen jarrera, eta batez ere ezkutuko beste obra batzuekin hartutakoak.

Alkateak orduan Irazu zinegotziari galdetzen dio, egin duen terraza eta portxea zertarako den, gainera dio jendeak galdetzen diola ea zer egiten ari den Irazu jaunak bere eraikinean.

Irazu zinegotziak Alkateari erantzuten dio esanaz, etxe baten itxura badu seinale ona dela, eta galdetzen dio ze kalte egiten duen, gainera berak egin duena ahal duen txukunena egiten saiatu dela.



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

Tejeria jaunak orduan azaltzen du herrian egin direla hainbat obra eta udala ez dela denetara ikustera joan.

Irazu jaunak dio asumitzen duela gaizki egin duela entreplantarena, baina ez duela uste barbaridade bat egin duenik, batzar honetan esaten ari diren bezala.

Ondoren Irazu zinegotziak batzarkideei galdetzen die ea hurrengo Udalbatzararte itxaron beharra daukan obrarekin jarraitzeko.

Alkateak erantzuten dio esanaz, aurkezteko Udal Aholkulari Teknikoak eskatzen dion dokumentazioa.

Irazu zinegotziak erantzuten du esanaz, tramitatzen direla legeztapen obrak eta lanak ez direla gelditu. Bera udaletxean dagoela, baina herritarra ere badela.

Ondoren, batzarkideen artean Irazu jauna egiten ari den eraikinari buruz berriro eztabaidatzen hasten dira.

Segidan Alkateak dio 15 eguneko epea emango zaiola Irazu jaunari dokumentazio Udalean aurkezteko. Irazu jaunak erantzuten dio esanaz, Teknikoak gaur aurkeztu nahi zuela dokumentazioa, baina bisatu egin behar dela eta horrek denbora eramaten duela. Gainera, bere teknikoa Udal Teknikoarekin egon behar duela, eskatzen dion dokumentazioa zehazteko.

Berriro era Irazu zinegotziak galdetzen die batzarkideei ea hurrengo Udalbatzararte itxaron beharko duen obrarekin jarraitzeko. Aranzabal eta Barandiaran zinegotziak erantzuten diote esanaz beraien ustez baietz.

HAMABIGARREN PUNTUA


LARRAULGO LAZTARI B ETXEAN JARDINEAN PORTXE BAT ERAIKITZEKO OBRA BAIMENA ESKAERA, K.P.A.

Ikusirik K.P.A. andreak eginiko eskaera, non Larraulgo Laztari B etxean jardinean portxe bat eraikitzeke obra baimena eskatzen duen.

Ikusirik 2014ko irailaren 30ean, Udal Aholkulari Teknikoak eginiko txostenean dioena:

“LARRAULGO LAZTARI-B ETXEAN ATERPE BAT EGITEKO ESKAERARI BURUZKO TXOSTEN TEKNIKOA

K.P.A. andreak, Larraulgo Laztari B etxearen alboan aterpe bat eraikitzeke baimena eskatzen du, portxearen aurrekontu eta ebakidura bat aurkezten duelarik. Aurreko dokumentazioa ikusirik, ZERA ADIERAZTEN DUT:



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

Aurkeztutako eskarian, Laztari B etxeko alboan portxe bat jarri nahi dela esaten da, lanen aurrekontua 3.871,28€ izanik. Aterpea egurrezkoa eta teilazkoa izango litzateke eta inguruko lorategiaren alaka forma hartuko luke, denetara 15,50m² hartuaz.

Larraulgo arauen 14º artikulua eraikinen kanpo itxuren aldetek udal lizentzia behar dutela esaten du eta 19º artikulua eraikin aprobetxamendua kontatzeko irizpideak ematen ditu.

Artículo 19.-Criterios de cómputo del aprovechamiento edificatorio

Computarán con carácter general como aprovechamiento edificatorio de un edificio los espacios siguientes:

-Los espacios cubiertos y cerrados con más de 1,80m. de altura libre-computará la parte de los mismos que supere dicha altura.

-Los elementos macizos de la edificación.

-Los patios y conductos de instalaciones de diámetro <1,50m

-Los huecos de ascensores

-Los balcones, terrazas, solanas y porches de todo tipo, cuando dispongan de cubrimiento y no estén sometidos a servidumbres de uso público. Se computarán el 50% de su superficie.

-En las bajocubiertas computarán los espacios y elementos anteriormente señalados, que se destinen de forma predominante a los usos propiciados o admisibles de la parcela; o, que destinándose a usos auxiliares de los anteriores-instalaciones de servicios o trasteros-no constituyan con los locales ocupados por aquellos una unidad registral indivisible, o, en el caso de los trasteros, cumpliendo este requisito, tengan una superficie útil superior a 15,00m² (u)por local.

...

Por el contrario, no computarán en ningún caso como parte del aprovechamiento edificatorio los espacios y elementos siguientes:

-Los espacios cubiertos y cerrados con menos de 1,80m de altura.

-Los patios y conductos de instalaciones de diámetro >1,50m


-Los porches de uso público en planta baja

-Los altillos, autorizados con carácter general en las edificaciones industriales.

Hau honela izanik eta 19º artikularen arabera, eranskin berriak 7,75m²-ko aprobetxamendu bat izango luke.

Laztari B etxea, Larraulgo lur hiritargarriaren barruan kokatua dago, bereziki A.I.U.1 Kaskoan eraikitako lehengo araudiko UAU.15 gunean.

Gaur egunean indarrean dagoen Larraulgo araudiaren arabera kaskoan dauden etxebizitzak finkatuak gelditzen dira oin berriko eraikuntza aukerarik gabe:



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

A.IU.1 Casco actual

Dentro de esta área se recoge el conjunto de edificaciones ya existentes en el actual casco de Larraul, incluyendo las ya desarrolladas y en fase de ejecución a raíz de las vigentes Normas Subsidiarias, así como las U.A.U.4, U.A.U.12 y U.A.U. 13 no ejecutadas, manteniéndose en estas últimas las previsiones ya aprobadas (7 viviendas en total).

Las edificaciones actuales se consolidan sin plantear posibilidades edificatorias de nueva planta, siendo las mencionadas U.A.U.4, U.A.U.12 y U.A.U.13 las únicas actuaciones posibles. Respecto a su denominación, varían, pasando a llamarse U.E.1.1 y U.E.1.2 respectivamente (unificando en una sola unidad de gestión las dos unidades correspondientes a Elizalde).

Beraz, eskarian azaltzen den aterpea eraikigarritasun handitze bat suposatzen duenez, portxea egitea ez litzateke baimengarri izango.”

Ondoren batzarkideen artean eztabaida bat sortzen da Udal Aholkulari teknikoak eginiko txostenarekin ados dauden edo ez jakiteko, gaia bozkatzeko delarik, ondorengoa izanik emaitza:

Aldeko botuak: Mujika, Jauregi, Barandiaran, Usandizaga eta Aranzabal, Alkate eta zinegotziak.

Kontrako botuak: Ez daude

Abstentzioak: Tejeria eta Irazu zinegotziak.

Bozketaren emaitza ikusirik, Udalbatzak, gehiengoz, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: K.P.A. andreak eginiko eskaera ukatu, hau da, Larraulgo Laztari B etxean jardinean portxe bat eraikitze obra baimena ez ematea, Udal Aholkulari Teknikoak eginiko txostenean jartzen dituen arrazoiak direla eta.


BIGARRENA: Erabaki honen berri K.P.A. andreari ematea.

HAMAIRUGARREN PUNTUA

OLATZA BASERRIAREN PABILOIAN TEILATUKO URALITAREN GAINEAN PANEL SANDWICHA JARTZEKO OBRA BAIMENA ESKAERA, I.S.

Ikusirik I.S.C. jaunak eginiko eskaera, non Olatza baserriaren pabiloian teilatuko uralitaren gainean panel sandwicha jartzeko obra baimena eskaera egiten duen.

Ikusirik, Udal Aholkulari Teknikoak, 2014ko irailaren 29an eginiko txostenean dioena:



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

“LARRAULGO OLATZA PABILOIKO TEILATUA KONPONTZEKO ESKAERARI BURUZKO BIGARREN TXOSTENA

I.S.K. jaunak , Larraulgo Olatza pabiloiko teilatua eraberritzeko baimena berriro eskatzen du, egin beharrko lanen deskribapena eta batazbesteko aurrekontu orokor bat aurkezten duelarik. Aurreko dokumentazioa ikusirik, ZERA ADIERAZTEN DUT:

Aurrekariak:

Uztailaren 1-ean, eta itoginak zirela medio, gaur egungo tejabana “panel sandwich” moduko batez ordezkatzeko baimena eskatu zuen J.S.C.I.

Estalduraren azalera 180m²koa zela esaten zen eskaeran, egin beharrko lanen batazbesteko aurrekontua 3.300€ izanik. Prezio honen barruan gaur egungo estalkiaren desmuntaia eta garbigunera eramatea eta panel berria jartzea sartzen zen. Udal txostena sinatzen duen teknikariaren arabera, lan horien aurrekontua 5.500€ inguruko izan behar zen.

Lehen eskarian aurkeztutako argazkietan teilatua fibrozementuzkoa zela ikusten zen eta fatxadaren zati batzuk raseatu gabeko adreiluzkoak zirela ere.

Obra baimena baldintzatua eman zen;

Pabiloia ren teilatuan jarritako xaflak edo panelak teila kolorezkoak izan behar ziren eta fatxadan bistan duden adreilu zatiak zarpiatu eta margotu.

Gainera, fibrozementuzko xaflak amiantozkoak baziren neurri bereziak gorde behar zirela esaten zen, desmuntaia enpresa espezializatu batek eginik.

Oraingo eskarian, fibrozementuzko edo uralitazko xaflak kentzeari uko egiten diote, panel sandwich-a zuzenean hauen gainean jarri. Lan hauen aurrekontua berriz 3.300€koa izango dela estimatzen dute.

Sinatzen duen teknikariaren arabera, aurreko txostenean esandakoa mantentzea egokiagoa da, hau da, aurrekontu 5.500€koa izan beharko litzateke.

Olatza pabiloia, Larraulgo lur ez hiritargarriaren D20 produkzio zonaldearen barruan kokaturik dago, beraz hirigintza-erregimen hiritargarriezina erabiliko da, bereziki 48º eta 66º artikulua.


Artículo 48.- Condiciones de tratamiento exterior de las edificaciones

-Con carácter general se evitará la utilización de materiales cuyo color, textura y formas de acabado difieran ostensiblemente de los utilizados en las construcciones rurales tradicionales de la zona.

-Como material de fachada se utilizará el revoco pintado y la piedra, prohibiéndose expresamente las terminaciones de bloque de hormigón visto y de ladrillo caravista, aunque la utilización de este último material se admitirá siempre que no supere el 25% de la superficie de cada fachada.

-Como material de cubierta se utilizará preferentemente la teja cerámica, autorizándose la utilización de otros materiales de coloración y textura similares.

Artículo 66.-Reforma y rehabilitación de los caseríos existentes



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

La reforma y rehabilitación será la opción utilizada preferentemente en todos aquellos casos en los que haya una construcción rural ya existente.

1.- Como criterio general, en cualquier obra de reforma y rehabilitación de los caseríos se deberán respetar las características fundamentales de los mismos.

2.-Obras que afecten a los elementos exteriores.

Se realizarán manteniendo el aspecto de terminación exterior del caserío primitivo en la composición de volúmenes, cubiertas, vuelos, huecos de fachada, etc...

Sortu daitezkeen hondakin ezberdinei buruz, ingurugiro eta osasuneko araudiek esaten dutena jarraitu beharko da, ala nola, 112/2012-ko ekainaren 26-ko dekretuaren 9º artikulua dioena:

“9 artikulua.-Obra txikietan sortutako eraikuntza eta eraispen-hondakinak ekoizten dituzten eta haien jabe diren pertsonen betebeharrak.

Obra txikietan sortutako eraikuntza eta eraispen-hondakinak ekoizten dituzten eta haien jabe diren pertsonak betebeharrak hauek dituzte:

a)Hondakinen ekoizleek, edo, hala dagokionean, haien jabe direnek, jatorrian bertan bereizi behar dituzte obra txikietan sortutako eraikuntza eta eraispen-hondakinak, honako hiru frakzio hauetan gutxienez:

*1.-**Harrizko hondakinak:** adreiluak, hormigoia, baldosak, harriak eta arroka (sabai aizunen igeltsua, moldurak eta panelak izan ezik, harrizko gainerako materialen zenbait ustiapen eragozten baitituzte).*

*2.-**Hondakin arriskutsuak:** amiantoa, pinturak, detergenteak, itsasgarriak, erretxinak, gehigarriak eta abar.*

*3.-**Hondakin ez-arriskutsuak:** beira, zura, metalezko hondakinak, PVCzko elementuak, bestelako plastikoak eta abar.*

*b)Hondakinen jabe den pertsonak behar bezala bereiziko ditu obrako hondakinok, eta ondoren, garraiatu eta behar den tokian utziko ditu, haiek sortu diren tokitik hurbilen dagoen **garbigunean** edo udal-ordenantzek agintzen duten moduan.*


*c)**Ekoizleak eraikuntza eta eraispen-hondakinak behar bezala kudeatu izana egiaztatzen duten agiriak aurkeztu behar dizkio Udalari.***

Pabiloiaren teilatuan jarritako xaflak edo panelak teila kororezkoak izan beharko dira eta fatxadetan bistan dauden aderilu zatiak zarpiatu eta margotu beharko dira.

Lanak irauten duten bitartean, legeek ezartzen dituzten arauzko segurtasun neurriak gorde beharko dira.

Beraz, aurrekoa betetzen bada, obra baimena ematea egokia dela informatzen dut.

Dena den, lanak hasi aurretik, ondoko bizilagunaren baimena ekarri beharko da udaletxera, berak teilatua konpontzen duenean antzera egingo duela eta antzeko materiala erabiliko duen konpromezuarekin batera.



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

Lanak amaitzean, eraispen-hondakinak behar bezala kudeatu izana egiaztatzen duten agiriak aurkeztu beharko dira udaletxean, pabiloiaren egoera berria adierazten duen argazkiarekin batera.”

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENGOA.- I.S.. jaunak eginiko obra baimena eskaera onestu, hau da, Larraulgo Olatza pabiloiko teilatua konpontzeko obra baimena ematea. Betiere, Udal Aholkulari Teknikoak, 2014ko irailaren 29an egindako txostenean jasotzen dituen baldintzak betetzen badira. Gainera, *“Lanak egiten hasi aurretik, ondoko bizilagunaren baimena ekarri beharko da udaletxera, berak teilatua konpontzen duenean antzera egingo duela eta antzeko materiala erabiliko duen konpromezuarekin batera.”*

BIGARRENA.- Indarrean dauden Ordenantza Fiskalen arabera dagokion kitapena onartzea.

HIRUGARRENA.- Erabaki honen berri interesdunari ematea.

HAMALAU GARREN PUNTUA

LARRAULEN KONPOSTAJE EZARKETAREN AZKEN BERRIAK EMATEA ETA HURRENGO PAUSOAK ERABAKITZEA, HALA BADA

Alkate-Lehendakariak batzarkideei berri ematen die, konpostajearen 2. Ezarketa bukatu dela, lehenengo bueltan 41 kospostagailu jarri zirelarik, 2. Buelta honetako datuak, SPORA-k ondorengo egunetan informazioa bidaliko duelarik.

Herri Ostatu eta Elkartek erabili beharko duten kospostagailuari buruz, Alkateak dio Elizegiko Iñakirekin egon dela ea kultur etxearen atzealdean duen zelaian jarri dezakeen. Lertxundi jaunak bere oneritzia eman diolarik.


Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Herri Ostatuak eta Elkartek erabiltzeko konpost-gailua, Kultur etxearen atzealdean dagoen zelaiaren iskin batean jartzea.

BIGARRENA: Erabaki honen berri Herri Ostatuari eta Elkarteari ematea.

HIRUGARRENA: Herrian zehar dauden zabor ontzi guztiak kendu eta birziklapena egin dadin dagozkionak plazan jartzea.



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

LAUGARRENA: Kontenedore txiki bat jartzea, etxetresna elektrikoak botatzeko.

HAMABOSTGARREN PUNTUA **FAKTURAK ETA ORDAINKETAK**

Alkate-Lehendakari jaunak ondorengo faktura zerrenda aurkeztu du:

CORREOS	2,48
BULEGOAK	79,61
TOLOMENDI	122,40
ELECTRICIDAD ZIZURKIL	528,95
MENDI 4WD	411,51
EINBER PREVENALIA	492,42
EBA ERKIZIA	787,06
IRATZE	142,29
TOLOSALDEKO MANKOMUNITATEA	1.968,13
TOLOSALDEKO MANKOMUNITATEA	1.909,62
GIPUZKOAKO UR KONTSORTZIOA	3.764,86
REPSOL	42,16
REPSOL	8,42
GAS NATURAL FENOSA	159,76
MOVISTAR	79,01
MOVISTAR	131,73
MOVISTAR	18,00
MOVISTAR	58,62

Udalbatzarrak **ahoz** batez hurrengoa,


ERABAKITZEN DU

BAKARRA.- Aipaturiko fakturak, denera **10.707,03** Eurotako kopurua osatzen dutenak onartzea.

HAMASEIGARREN PUNTUA **BESTE BATZUK**

16.1. TXOMIN GARMENDIA BERTSOLARIAK EGINIKO ESKAERA AZTERTU, HALA BADA

Ikusirik Txomin Garmendia bertsonariak eginiko eskaera, non Larraulgo Herriari hainbat bertso idatzi dizkiola eta Larraulgo Udalarari 50€tako diru-laguntza eskaera egiten dion.



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

Gaia aztertuturik, Udalbatza honek, aho batez ondorengo

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Txomin Garmendia Bertsolariak, Larraulgo herriari eginiko bertsoak onartzea, eta trukean 50€ ordaintzea.

BIGARRENA.- Erabaki honen berri interesdunari ematea.

16.2. LARRAULGO URBELTZ AUZOKO 37 ZENBAKIKO ETXEBIZITZETAKO AURREKO FATXADA ETA EZKERRALDEKO BALKOIA MARGOTU ETA TXIMINIAK KONPONTZEKO ETA MARGOTZEKO OBRA BAIMENA ESKAERA, A.N., M.B. ETA P.O, T.E.

Ikusirik A.N., M.G., P.O. eta T.E. jaun/andreak eginiko eskaera, non Larraulgo Urbeltz auzoko 37 ezker- eskubian, etxebizitzetako aurreko fatxada eta ezkerraldeko balkoia margotzeko eta tximiniak konpontzeko eta margotzeko obra baimena eskaera egiten duten.

Ikusirik Larraulgo Arau subsidiarioen 14º artikulua esaten duen bezala, eraikinen kanpo itxuraren aldaketek udal lizentzia behar dutela.

Ikusirik kasu honetan udal baimena gauzatzeko, A.N., M.G., P.O. eta T.E. jaun/andreak egin behar duten lanen aurrekontu bat aurkezten dutela.

Gaia aztertuturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengo

ERABAKITZEN DU:


LEHENA.- A.N., M.G., P.O. eta T.E. jaun/andreak eginiko obra baimena eskaera onestu, hau da, Larraulgo Urbeltz auzoko 37 ezker- eskubian, etxebizitzetako aurreko fatxada eta ezkerraldeko balkoia margotzeko eta tximiniak konpontzeko eta margotzeko obra baimena ematea, ondorengo baldintzak bete beharko dutelarik:

- 112/2012-ko ekainaren 26-ko dekretuaren 9º artikulua dioena:

9. artikulua.– Obra txikietan sortutako eraikuntza- eta eraispen-hondakinak ekoizten dituzten eta haien jabe diren pertsonen betebeharrak.

Obra txikietan sortutako eraikuntza- eta eraispen-hondakinak ekoizten dituzten eta haien jabe diren pertsonen betebeharrak hauek dituzte:

a) Hondakinen ekoizleek, edo, hala dagokionean, haien jabe direnek, jatorrian bertan bereizi behar dituzte obra txikietan sortutako eraikuntza- eta eraispen-hondakinak, honako hiru frakzio hauetan, gutxienez:



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

1.– *Harrizko hondakinak: adreiluak, hormigoia, baldosak, harriak eta arroka (sabai aizunen igeltsua, moldurak eta panelak izan ezik, harrizko gainerako materialen zenbait ustiapen eragozten baitituzte).*

2.– *Hondakin arriskutsuak: amiantoa, pinturak, detergenteak, itsasgarriak, erretxinak, gehigarriak eta abar.*

3.– *Hondakin ez-arriskutsuak: beira, zura, metalezko hondakinak, PVCzko elementuak, bestelako plastikoak eta abar.*

b) *Hondakinen jabe den pertsonak behar bezala bereiziko ditu obrako hondakinok, eta, ondoren, garraiatu eta behar den tokian utziko ditu, haiek sortu diren tokitik hurbilen dagoen garbigunean edo udal-ordenantzek agintzen duten moduan.*

c) *ekoizleak eraikuntza- eta eraispen-hondakinak behar bezala kudeatu izana egiaztatzen duten agiriak aurkeztu behar dizkio Udalari.*

- Lanak irauten duten bitartean, legeek ezartzen dituzten arauzko segurtasun neurriak gorde beharko dira.

BIGARRENA: Indarrean dauden Ordenantza fiskalen arabera dagokion kitapena onartzea.

HIRUGARRENA: Erabaki honen berri interesdunari ematea.

16.3.LARRAULGO SOROZELAI 40 ezk.-ko PARTZELAREN BERDEGUNEAN BALDOSA JARTZEKO OBRA BAIMENA ESKAERA, J.L.D.M.

Ikusirik J.L.D.M. jaunak eginiko eskaera, non Larraulgo Sorozelai 40 ezk-ko partzelaren berdegunean baldosa jartzeko obra baimena eskaera egiten duen.

Ikusirik 2014ko urriaren 2an, Udal Aholkulari teknikoak eginiko txostenean dioena:


“LARRAULGO SOROZELAI 40 ezk. –ko PARTZELAREN BERDEGUNEAN BALDOSA JARTZEKO ESKAERARI BURUZKO TXOSTENA

J.L.D.M. jauank, Sorozelai 40-ezk. Etxearen atzealdean 30m2ko baldosazko lur bat egiteko baimena eskatzen du, lanen aurrekontua eta deskribapen txiki bat aurkezten duelarik. Aurreko dokumentazioa ikusirik, ZERA ADIERAZTEN DUT:

Eskaeran 30m2ko zoru bat egin nahi dela esaten da. Erabiliko den plaketa, gaur egunean etxearen inguruan dagoena bezalakoa izango da, lanen aurrekontua 1.987,90€ izanik.

Sorozelai 40 izeneko eraikina, Larraulgo lur-hiritargarran kokatua dago, bereziki 1.2 unitatean.

Larraulgo arauen 38º artikulua honela dio:



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

Artículo 38.- Cierres de parcela

Los cierres de las parcelas privadas se realizarán con muretes de mampostería de piedra de altura no superior a un metro o por medio de elementos vegetales con altura no superior a 1,50mts.

Los cierres provisionales a base de estacas de madera y alambre no tendrán una altura superior a 1,20mts.

Los espacios ajardinados privados que surjan en las parcelas deberán recibir tratamiento de jardinería al menos en un 50% de su superficie.

Katastroaren arabera, etxebizitzak duen lorategiaren azalera 225m2koa da, eta udaletxeak egindako azken plano topografikoaren arabera 200m2(etxeko sarrera kenduaz). Gaur eguneko berdeguneak 155m2 inguru izango ditu eta baldosazko zolua ez da 45,2 iristen.

Beraz, eta partzela pribatuaren berdegunea %50 baino gutxiagoa ez dela izango ikusirik, egokia iruditzen zait udal baimena ematea.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENGOA.- J.L.D.M. jaunak eginiko obra baimena eskaera onestu, hau da, Larraulgo Sorozelai 40 ezk.-ko partzelaren berdegunean baldosa jartzeko obra baimena ematea. Betiere, Udal Aholkulari Teknikoak, 2014ko urriaren 2an egindako txostenean jasotzen dituen baldintzak betetzen badira.

BIGARRENA.- Indarrean dauden Ordenantza Fiskalen arabera dagokion kitapena onartzea.

HIRUGARRENA.- Erabaki honen berri interesdunari ematea.


HAMAZAZPIGARREN PUNTUA **ERREGU, GALDERAK ETA MOZIOAK**

Ez dira aurkezten.

Beste gairik ez dagoenez, gaueko 22.30 orduak direnean Alkate jaunak bilera amaitutzat ematen du, nik, Idazkari-Kontuhartzaile naizen honek akta honetan jasotakoa ziurtatzen dudalarik.

ALKATEA

IDAZKARI-KONTUHARTZAILEA



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

